

IZENA EMATEKO FORMULARIOA

Bertaratuko dena adingabea bada, honakoa bete:

.....
..... jn./and.-k, adinez nagusia, NAN
..... eta bizilekua
.....

.....
dituenak, eta
..... adingabearen aita/ama/legezko tutore gisa,
ONARTU EGITEN DITU honako FORMULARIOAn jasotzen diren baldintza orokorrak.

(Bertaratuko denak 14 urte baino gutxiago baditu, honakoa bete)

Laguntzailearen datuak:

.....
... jn./and., adinez nagusia, eta NAN duena.

Sinadura:

Bertaratuko dena adinez nagusia bada, honakoa bete:

.....
..... jn./and.-k, adinez nagusia, NAN
..... eta bizilekua
.....

.....
dituenak, bere izenean eta bere burua ordezkatzuz, **ONARTU EGITEN DITU**
honako FORMULARIOAn jasotzen diren baldintza orokorrak.

Sinadura:

OHARRA: Honako formularioa bete eta gutarday@eitb.eus helbidera bidali

2015eko azaroaren 6an EITBren Bilboko egoitzako Multibox aretoan ospatuko den “Gutar Day” festara joateko baldintzak.

EITB Komunikazio Talde publikoak (aurrerantzean, EITB) datorren azaroaren 6an Bilbon duen egoitzako Multibox aretoan ‘Gu ta Gutarrak’ ikus-entzunezko ekoizpenarekin lotuta egin nahi duen festarako sarrerak banatzeko asmoa du.

Festa hartuko duen lekuak edukiera mugatua duenez, ETBk ondoz ondoko konkurrentzia-prozedura erabiliz kudeatuko ditu eskariak; hau da, iritsi ahala zehaztutako ordenan aztertuko ditu eskariak.

14 urtetik beherakoek adinez nagusia den pertsona batekin egon beharko dute une oro, eta horretarako, beraiekin joango den pertsonaren datuak eman beharko dizkio EITBri. Beraz, guraso edo legezko tutoreek bere egin eta bermatu egiten dute honako FORMULARIOAn jasotako datuak egiazkoak direla.

EITBk eta horren mendeko sozietateek festaren argazkiak hartu eta erreproduzitu ahalko dituzte, eta publikoki komunikatu eta zabaldu, edozein euskarritan eta horiek erreproduzitzeko edozein prozedura tekniko edo ustiatzeko sistema baliatuz, bideo euskarrian, besteak beste, eta Internet bidez zabaldu eta modu interaktiboan garatu, inolako denbora eta lurralde mugarik gabe, eta hirugarren batzuei uzteko aukera ere izango du.

Emandako datu pertsonalak jasota geratuko dira, bai LEHIAKETAK fitxategian (EUSKAL IRRATI TELEBISTA-RADIO TELEVISIÓN VASCA –EITB– da horren jabe), bai ‘Gu ta Gutarrak’ saioa ekoizteko ardura duen ekoiztetxeak (NEW MEDIA EUSKADI, SL) horretarako prestatuko duen fitxategian. Fitxategiaren helburua jasotako materiala EITBren hedabideetan argitaratzea edota ematea da. Datuak Babesteko Lege Organikoak arautzen duena betez, datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, indarrik gabe uzteko eta datuen aurka egiteko eskubidea izango da; horretarako, gutuna bidali beharko da EITBren Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritzara (Basurtuko Kaputxinoak 2, 48013 Bilbo), horrekin batera NANaren fotokopia bat bidalita.

Bidaltzailea izango da arduradun bakarra, dokumentu honetan bildutako edozein puntu bete ez izanaren ondorioz jaso daitekeen edozein erreklamazioren aurrean.